

## GOBERNU BATZARRA

2017 05 15

**Alkatea:** Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko maiatzaren hamabostean, 08:00etan, Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko:

**Olatz Peon Ormazabal**

**Zinegotziak:**

**Patxi Amantegi Zubiria**  
**Nerea Letamendia Belloso**  
**Jokin Azkue Arrastoa**  
**Iñigo Alonso Sarasibar**

**Beh. Beh. Idazkaria:**

**Karmele Contreras Goikoetxea**

**Kontuhartzailtza:**

**Ainhoa Molinos Zubiaurre**

- 1.- Aurreko akta onartzea.
- 2.- Tolosako Udalaren eta Tolosaldea Garatzenen arteko hitzarmena.
- 3.- Hondakin bilketaren tasa. Hobarien eskaerak. Alokairuan.
- 4.- Ataria 2017.
- 5.- Galtzaundi 2017.
- 6.- 28 Kanala 2017.
- 7.- Kontseilua 2017.
- 8.- Herri Urrats 2017.
- 9.- Euskararen sagartzea 2017.
- 10.- Kilometroak 2017.
- 11.- Nafarroa Oinez 2017.
- 12.-CITekiko hitzarmena eta aurrekontua 2017.
- 13.-Samaniego ikastetxeko goiko aldean dagoen kirolguneko irisgarritasun obrak kontratatzea.
- 14.-24-25/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.

### **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko maiatzaren 8an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### **2.- Tolosako Udalaren eta Tolosaldea Garatzenen arteko hitzarmena.**

Tolosako Udaleko enplegu-teknikariak, Tolosako Udalaren eta Tolosaldea Garatzenen arteko hitzarmen-proposamena banatu ondoren, oraingo egoera azaldu du.

Kontuan izanik, batetik, Oriaburu Coworking edo kolaneko gunearen helburua dela Tolosan berrikuntza eta sorkuntzako ekonomia-gune berri bat sortzea eta, bestetik, Tolosaldea Garatzen dela eskualdeko garapen-agentzia eta, beste helburu batzuen artean, enplegu-sorkuntza dakarten ekimen berriak sustatzea dela daukan helburua.

Ikusiz, era berean, azken urte hauetan lan handia egin duela ekintzaileak prestatzen, enplegu-ekimen berriak biltzen eta martxan jartzen.

Ikusita, Oriaburu Coworking edo kolaneko eraikina obretan dagoela eta udazkenerako prest egongo dela, eta ikusita komenigarria dela programaren informazioa eta izena emateko prozesuari ekitea bi erakundeen artean.

Gobernu Batzar honek, aipatutakoa kontuan izanik, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Onartzea aurkeztutako Hitzarmena.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailletza eta Idazkaritza Departamentuei, Ekonomia sustatzeko Departamentuari eta interesatuei.

### **3.- Hondakin bilketaren tasa. Hobarien eskaerak. Alokairuan.**

Udal honetan aurkeztu dira eskariak hondakin bilketako tasen hobariak eskuratzeko, baina eskatzaileak ez dira etxebizitzan jabe, baizik eta alokairuan daudenak.

Ildo horretatik, hondakin bilketako tasen hobariak zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik tasen ordenantza fiskalean arautzen dira; hain zuzen ere, 2.1.6. eranskineko 9. artikuluan.

Bertan, adierazten da hondakin bilketa zerbitzuko tasaren % 100eko hobaria izango dutela gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemak eskaintzen dituen prestakuntza ekonomiko baterako baldintzak betetzen dituen edo Tolosan errolatutako lanbide arteko gutxieneko soldatara iristen ez diren sarrerak dituztela egiaztatzen duten bizikide unitateek.

Hondakin bilketaren tasaren subjektu pasiboak etxebizitzaren jabea da. Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauak honakoa dio:

**“23. artikulua.**

**1.** *Tasen subjektu pasiboak dira, zergadun diren aldetik, pertsona fisiko eta juridikoak, bai eta Zergen Foru Arau Orokorrek 35. artikulua 3 apartatuan aipatutako entitateak, baldin eta:*

*a) Udalerriaren herri jabaria bereziki gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute beren onurarako, foru arau honek 20.2 artikuluan jasotako kasuetako baten arabera.*

**2.** *Zergadunaren ordezkioak hauexek izango dira:*

*a) Etxebizitza edo lokalen egoiliar edo erabiltzaileei onura dakarkien edo eragiten dieten zerbitzu edo jarduerengatik finkatutako tasetan: Ondasun higiezin horien jabeak. Horiek, bidezkoa denean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.”*

Aipatutakoa kontuan izanik eta ikusita espedientean azaltzen diren eskatzaileek ez direla etxebizitzaren jabeak, ezta hondakinen tasaren subjektu pasiboak ere, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Eskatutako hobariak ez ematea aipatutako arrazoiengatik.

**BIGARRENA.**- Hondakin tasaren kopuruaren zenbatekoa (112,10 €) diru-laguntza bidez ematea, eskatzaileen egoera ekonomikoa ikusita.

**HIRUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuei.

#### **4.- Ataria 2017.**

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM (Ataria) hedabideak, kontuan izanik Tolosako Udalarekin sinatuta daukan hitzarmena, 2017ko diru-laguntza bideratzeko eskatu zion Tolosako Udalari aurtengo martxoaren 23an.

Hain zuzen ere, Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM (Ataria) hedabideak 2015eko apirilaren 1ean sinatu zuen hitzarmena Tolosako Udalarekin, Udaltzatzen 2015eko otsailaren 24ko Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren ondorioz.

Hitzarmen hori indarrean dago 2017. urtera arte, urte hori bera barne.

Bestalde, Tolosako Udalbatzak, 2017ko urtarrilaren 31ko Osoko Bilkuran, Tolosako Udalaren diru-laguntzen plan estrategikoa onartu zuen 2017-2019 epealdirako.

Plan estrategiko horretan, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza atalean, euskarazko hedabideen ohiko jardunerako, 90.000 euroko diru-laguntza ageri da izendatuta 0900.481.01.335.10 partidaren Tolosaldeko Komunikazio Taldea (Ataria) hedabidearentzat, 2017ko udal aurrekontuen kargura.

Ikusirik, beraz, Atariak aurkeztutako eskaera eta, kontuan izanik, bestetik, Atariak Udalarekin sinatutako hitzarmena, udal txosten teknikoak eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordeak 2017ko martxoaren 30ean emandako irizpena,

Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Tolosaldeko Komunikazio Taldea (Ataria) hedabidearentzat 90.000 euroko diru laguntza onartzea, Tolosako Udalaren 2017ko udal aurrekontuetako 0900.481.01.335.10 partidaren kargura.

**BIGARRENA.**- Diru-laguntzaren % 70 aurreratzea Tolosaldeko Komunikazio Taldea (Ataria) hedabideari, honako agiri hauek aurkeztu eta gero:

- 2017. urteko egitasmoa eta aurrekontua.
- Zerga zein Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.
- Aurreko ekitaldiko urteko kontuak, dagokion organoak onartuta.

**HIRUGARRENA.**- Diru-laguntzaren gainerako zatia, % 30a, dokumentazio hau Udalari entregatu eta gero ematea:

- 2017ko jardueren memoria, diru-laguntzarekin finantzatutako ekintzen azalpen xehatua eta kostua jasoko duena.
- Hitzarmenean ezarritako betebeharrak gauzatu direla adieraziko duen ziurtagiria.
- 2017ko memoria ekonomikoa, gutxienez dokumentu hauek bilduko dituena:
  - Diruz lagundutako jardueren diru-sarreraren eta gastuen balantzea (Galdu Irabazien kontu xehatua).
  - Diru-laguntzaren xedea betetzeko egindako gastuak egiaztatuko dituzten fakturak, jatorrizkoak edo, hala ez balitz, fotokopia konpultsatuak.
  - Diruz lagundutako jarduerak finantzatu duten diru-sarreraren eta diru-laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adieraziz.
  - Zerga zein Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.

**LAUGARRENA.**- Erabakiaren berri ematea interesdunari, Kontuhartzailetzari eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Departamentuari.

## **5.- Galtzaundi 2017.**

Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrak 2014ko otsailaren 21ean erabaki zuen Tolosako Galtzaundi Euskara Taldearekin lankidetzako hitzarmen bat egitea, Tolosan euskararen erabilera normalizatzeko egitasmo batzuk aurrera eramateko 2014tik 2017ra, biak barne.

Hitzarmen hura 2014ko martxoaren 10ean izenpetu zuten Tolosako Udalak eta Galtzaundi Euskara Taldeak, eta indarrean dago.

Hitzarmenaren arabera, Tolosako Udalak 54.000 euroko laguntza eman behar zion Galtzaundiri 2014an, eta urtez urte, 2017 arte, KPIa aplikatuta.

Bestalde, Tolosako Udalbatzak, 2017ko urtarrilaren 31ko Osoko Bilkuran, Tolosako Udalaren diru-laguntzen plan estrategikoa onartu zuen 2017-2019 epealdirako.

Plan estrategiko horretan, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza atalean, euskararen normalizazio lanetarako, 54.278 euroko diru-laguntza ageri da izendatuta 0900.481.01.335.10 partidaren Galtzaundi Euskara Taldearentzat, 2017ko udal aurrekontuen kargura.

Era berean, hitzarmenak dioena kontuan hartuz, Udalak konpromisoa hartu zuen Galtzaundi Euskara Taldeari urteko diru-laguntzaren % 60 aurreratzeke.

Ikusirik, beraz, hitzarmenak dioena, Galtzaundiren 2017ko egitasmoa, udal txosten teknikoak eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordeak 2017ko martxoan emandako irizpena,

Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Onartzea 54.278 euroko diru-laguntza Galtzaundi Euskara Taldearentzat, Tolosako Udalaren 2017ko udal aurrekontuetako 0900.481.01.335.10 partidaren kargura.

**BIGARRENA.**- Diru-laguntzaren % 60 aurreratzea Galtzaundi Euskara Taldeari, hitzarmenean jarritako baldintzen arabera.

**HIRUGARRENA.**- Urteko diru laguntzaren gainerako zatia, % 40a, dokumentazio hau Udalari aurkeztu eta gero ordaintzea:

- Diruz lagundutako jardueren memoria
- 2018ko egitasmoa
- Diru-sarreraren eta gastuen balantzea
- Diru-laguntza osoa zuritzeko adina fakturak, jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak.

- Zerga zein Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.

**LAUGARRENA.**- Erabakiaren berri ematea interesdunari, Kontuhartzaitzari eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Departamentuari.

## **6.- 28 Kanala 2017.**

Tolosa Komunikabideak SL (28 Kanala) hedabideak, kontuan izanik Tolosako Udalarekin sinatuta daukan hitzarmena, 2017ko diru-laguntza bideratzeko eskatu zion Tolosako Udalari aurtengo otsailaren 21ean.

Hain zuzen ere, Tolosa Komunikabideak SL (28 Kanala) hedabideak 2015eko apirilaren 1ean sinatu zuen hitzarmena Tolosako Udalarekin, Udalbatzak 2015eko otsailaren 24ko Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren ondorioz.

Hitzarmen hori indarrean dago 2017. urtera arte, urte hori bera barne.

Bestalde, Tolosako Udalbatzak, 2017ko urtarrilaren 31ko Osoko Bilkuran, Tolosako Udalaren diru-laguntzen plan estrategikoa onartu zuen 2017-2019 epealdirako.

Plan estrategiko horretan, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza atalean, euskarazko hedabideen ohiko jardunerako, 36.000 euroko diru-laguntza ageri da izendatuta 0900.481.01.335.10 partidaren Tolosa Komunikabideak SL (28 Kanala) hedabidearentzat, 2017ko udal aurrekontuen kargura.

Ikusirik, beraz, 28 Kanalak aurkeztutako eskaera, eta kontuan izanik, bestetik, aipameneko hitzarmena, udal txosten teknikoak eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordeak 2017ko martxoaren 30ean emandako irizpena,

Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Tolosa Komunikabideak SL (28 Kanala) hedabidearentzat 36.000 euroko diru-laguntza onartzea, Tolosako Udalaren 2017ko udal aurrekontuetako 0900.481.01.335.10 partidaren kargura.

**BIGARRENA.**- Diru-laguntzaren % 70 aurreratzea Tolosa Komunikabideak SL (28 Kanala) hedabideari, honako agiri hauek aurkeztu eta gero:

- 2017. urteko egitasmoa eta aurrekontua
- Zerga zein Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria
- Aurreko ekitaldiko urteko kontuak, dagokion organoak onartuta.

**HIRUGARRENA.**- Diru-laguntzaren gainerako zatia, % 30a, dokumentazio hau Udalari entregatu eta gero ematea:

- 2017ko jardueren memoria, diru-laguntzarekin finantzatutako ekintzen azalpen xehatua eta kostua jasoko duena.
- Hitzarmenean ezarritako betebeharrak gauzatu direla adieraziko duen ziurtagiria.
- **2017ko memoria ekonomikoa, gutxienez dokumentu hauek bilduko dituen:**
  - Diruz lagundutako jardueren diru-sarreraren eta gastuen balantzea (Galdu Irabazien kontu xehatua).
  - Diru-laguntzaren xedea betetzeko egindako gastuak egiaztatuko dituzten fakturak, jatorrizkoak edo, hala ez balitz, fotokopia konpultsatuak.
  - Diruz lagundutako jarduerak finantzatu duten diru-sarreraren eta diru-laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adieraziz.
  - Zerga zein Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.

**LAUGARRENA.**- Erabakiaren berri ematea interesdunari, Kontuhartzaitzari eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Departamentuari.

## **7.- Kontseilua 2017.**

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak, 2017ko egitasmoa aurkeztuz, diru-laguntza eskatu zion Tolosako Udalari.

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua euskarak garapen osoa izatea helburu duten erakundearen bilgunea da, eta maila pertsonal, sozial eta ofizialean euskararen normalizazioa edo berreskuratze osoa lortzea da bere helburua. Lan hori erakunde publikoekiko lankidetzan egiten du.

Kontseilua irabazi-xederik gabeko kultura erakundea da; onura publikoko izendatua eta lehentasunezko zatitza den jardueraren egiteko duena.

Tolosako Udalak urteak daramatza Kontseiluarekin elkarlanean eta diruz lagunduz erakundea, berriaz sinatutako hitzarmenaren tarteko direla.

Horrela, Tolosako Udaleko Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordeak, aurtengo urtarrilaren 26ko bileran, onatzen duen Kontseiluarekin elkarlanean jarraitzea.

Bestalde, Tolosako Udalbatzak 2017ko urtarrilaren 31ko Osoko Bilkuran Tolosako Udalaren diru-laguntzen plan estrategikoa onartu zuen 2017-2019 epealdirako.

Plan estrategiko horretan, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza atalean, ohiko jarduerarako, 5.000 euroko diru-laguntza ageri da izendatuta 0900.481.01.335.10 partidaren Kontseilua erakundearentzat, 2017ko udal aurrekontuen kargura.

Kontuan izanik, hortaz, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordearen irizpena eta udal txosten teknikoak, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluari 5.000 euroko diru laguntza onartzea, Tolosako Udalaren 2017ko udal aurrekontuetako 0900.481.01.335.10 partidaren kargura.

**BIGARRENA.**- Diru-laguntza bideratzeko hitzarmena onartzea.

**HIRUGARRENA.**- Diru-laguntzaren % 60 aurreratzea Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluari, hitzarmena formalizatu eta honako agiri hauek aurkeztu eta gero:

- 2017. urteko egitasmoa eta aurrekontua.
- Zerga zein Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria

**LAUGARRENA.**- Diru laguntzaren gainerako zatia, % 40a, dokumentazio hau Udalari aurkeztu eta gero ematea:

- Diruz lagundutako jardueren jardueren memoria.
- Diru kontuen balantzea.
- Diru-laguntzaren xedea betetzeko egindako gastuak egiaztatuko dituzten fakturak, jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak.
- Zerga zein Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.

**BOSGARRENA.**- Erabakiaren berri ematea interesdunari, Kontuhartzaitzari eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Departamentuari.

### **8.- Herri Urrats 2017.**

Iparraldeko ikastolen eta euskararen aldeko festa, Herri Urrats, maiatzaren 14an ospatuko da aurten, Tolosako Udalari urtarrilean egindako eskaeran (1017 erregistro zk.) adierazten duten moduan.

Herri Urratsaren helburu garrantzitsuena da laguntza ekonomikoak jasotzea Seaska ikastolen elkartearentzat, euskal irakaskuntza sustatzeko Iparraldean, euskararen egoera normalizatu dadin lurralde hartan.

Bestalde, Tolosako Udalbatzak 2017ko urtarrilaren 31ko Osoko Bilkuran Tolosako Udalaren diru-laguntzen plan estrategikoa onartu zuen 2017-2019 epealdirako.



Plan estrategiko horretan, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza atalean, euskara sustatzeko helburuarekin, 1.000 euroko diru-laguntza ageri da izendatuta 0900.481.01.335.10 partidan Herri Urrats ekimenarentzat, 2017ko udal aurrekontuen kargura.

Era berean, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordeak, 2017ko urtarrilaren 26an, proposatu zuen 1.000 euro ematea Herri Urrats laguntzeko.

Hortaz, kontuan harturik aipatutako aurrekariak eta udal txosten teknikoak, Gobernu Batzar honek aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Herri Urrats ekimenarentzat 1.000 euroko diru-laguntza ematea 2017ko udal aurrekontuetako 0900.481.01.335.10 partidatik.

1.

**BIGARRENA.-** Erabakiaren berri ematea interesdunari, Kontuhartzaitzari eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Departamentuari.

### **9.- Euskararen sagartzea 2017.**

Tolosako Udalak Baionako Bernat Etxepare Lizeoaren laguntza eskaera jaso zuen 2016ko abenduaren 14ko datarekin (Udal Sarrera Erregistroko 10146 zk.).

Bernat Etxepare Lizeoa Ipar Euskal Herrian 15-18 urte arteko formakuntza (DBH4, BB1 eta BB2) osoki euskaraz ematen duen lizeo bakarra da, eta datorren ikasturtetik aurrera adar profesionala eskaintzeko asmoa du Iparraldeko haur eta gazteentzat ikasketak euskaraz egiteko eskaintza zabaltzeko helburuarekin.

Lizeoaren eskaintza berriaren ondorioz, eta geroz eta ikasle gehiago dituztenez, eraikin berria egitea besterik ez zaie geratu. Eskaeran diotenez, horren kostua 300.000 eurora iritsiko da.

Finantzaketa bila, lizeoko gurasoen nahitaezko ekarpen ekonomikoez gain, "Euskararen sagartzea" izenarekin kanpaina bat zabaldu dute Euskal Herri osoan dirua lortzeko.

Tolosako Udaleko Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordeak, 2017ko urtarrilaren 26an egindako bileran, eskaera aztertu eta gero, proposatu zuen 1.700 euroko diru-laguntza ematea, kontuan izanik bereziki euskararen etorkizunerako ezinbestekoak direla horrelako hezkuntza eta prestakuntza proiektuak aurrera eramatea Euskal Herri osoan, eta are gehiago horrelako eskaintza bakarra denean zonalde handi batean.

Hortaz, kontuan harturik aipatutako aurrekariak eta udal txosten teknikoak, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Bernat Etxepare Lizeolari 1.700 euroko diru-laguntza ematea 2017ko udal aurrekontuetako 0900.481.01.335.10 partidatik.

**BIGARRENA.-** Erabakiaren berri ematea interesdunari, Kontuhartzaitzari eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Departamentuari.

#### **10.- Kilometroak 2017.**

Gipuzkoako ikastolen eta euskararen aldeko festa, Kilometroak, irailaren 24an ospatuko da aurten, Tolosako Udalarari 2016ko abenduaren 21ean egindako eskaeran (10395 erregistro zk.) adierazten duten moduan.

Bestalde, Tolosako Udalbatzak 2017ko urtarrilaren 31ko Osoko Bilkuran Tolosako Udalaren diru-laguntzen plan estrategikoa onartu zuen 2017-2019 epealdirako.

Plan estrategiko horretan, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza atalean, euskara sustatzeko helburuarekin, 1.000 euroko diru-laguntza ageri da izendatuta 0900.481.01.335.10 partidaren Kilometroak ekimenarentzat, 2017ko udal aurrekontuen kargura.

Era berean, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordeak, 2017ko urtarrilaren 26an, proposatu zuen 1.000 euro ematea Kilometroak laguntzeko.

Hortaz, kontuan harturik aipatutako aurrekariak eta udal txosten teknikoak, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **E R A B A K I D U**

**LEHENA.-** Kilometroak ekimenarentzat 1.000 euroko diru-laguntza ematea 2017ko udal aurrekontuetako 0900.481.01.335.10 partidatik.

**BIGARRENA.-** Erabakiaren berri ematea interesdunari, Kontuhartzaitzari eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Departamentuari.

#### **11.- Nafarroa Oinez 2017.**

Nafarroako ikastolen eta euskararen aldeko festa, Nafarroa Oinez, urriaren 15ean ospatuko da aurten, Tolosako Udalarari 2016ko azaroaren 30ean egindako eskaeran (9.779 erregistro zk.) adierazten duten moduan.

Bestalde, Tolosako Udalbatzak 2017ko urtarrilaren 31ko Osoko Bilkuran Tolosako Udalaren diru-laguntzen plan estrategikoa onartu zuen 2017-2019 epealdirako.

Plan estrategiko horretan, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza atalean, euskara sustatzeko helburuarekin, 1.000 euroko diru-laguntza ageri da izendatuta 0900.481.01.335.10 partidaren Nafarroa Oinez ekimenarentzat, 2017ko udal aurrekontuen kargura.

Era berean, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordeak, 2017ko urtarrilaren 26an, proposatu zuen 1.000 euro ematea Nafarroa Oinez laguntzeko.

Hortaz, kontuan harturik aipatutako aurrekariak eta udal txosten teknikoak, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Nafarroa Oinez ekimenarentzat 1.000 euroko diru-laguntza ematea 2017ko udal aurrekontuetako 0900.481.01.335.10 partidatik.

**BIGARRENA.**- Erabakiaren berri ematea interesdunari, Kontuhartzaitzari eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Departamentuari.

### **12.- CITekiko hitzarmena eta aurrekontua 2017.**

Kreditu aldaketa indarrean ez dagoenez, gaia mahai gainean geratzen da.

### **13.-Samaniego ikastetxeko goiko aldean dagoen kirolguneko irisgarritasun obrak kontratatzea.**

Espedientean dauden txosten tekniko eta juridikoek kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkatek emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Espedientea onartzea Samaniego Ikastetxeko eraikinean goiko aldean dagoen kirolguneko irisgarritasun obrak egiteko. Lizitazio-tipoa: 114.173,03 (BEZa barne).

**BIGARRENA.**- 116.500 €-ko gastua baliatzea dagokion partidaren kargura.

**HIRUGARRENA.**- Onartzea klausula administratibo partikularren plegua, aipameneko obrak kontratatzeko, publiziterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez.

**LAUGARRENA.**- Adjudikatzeko prozedurari hasiera ematea eta, horretarako, dagozkion gonbitak egitea eskaintzak aurkezteko.

### **14.- 24-25/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.**

Kontuhartzaitzak **24/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **303.118,55** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.**- 24/2017 faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailetzari.

.....

Kontuhartzailetzak **25/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **47.833,78 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.**- 25/2017 faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailetzari.

.....

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.**

**ALKATEA**

**Beh. Beh. IDAZKARIA**